

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

25.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute 2012ko Nafarroaren Egunaren ekitaldietan

Nafarroako Gobernuak antolatuta, azaroaren 24ean hasi ziren eta abenduaren 3an amaitu

Martes, 04 de diciembre de 2012

25.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Foru Gobernuak programatutako ekitaldietan [2012ko Nafarroaren Egunaren](#) ospakizuna dela eta, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak emandako datuen arabera.

Herstura-irizpideekin eta aurreko urte batzuetakoa baino aurrekontua txikiagoarekin antolatuta (2011n baino % 11,91 gutxiago eta 2010 baino % 50 gutxiago), ekitaldiak iragan larunbatean, azaroak 24, hasi ziren eta atzo astelehenean, abenduak 3, amaitu.

Jende gehien bildu zuen ekitaldia abenduaren 3an 13:00ean [abesbatzek eta bandek emandako 72 kontzertuak](#) izan ziren, eta foru-geografia guztian banatutako beste 72 udalerritan eskaini zirenak. 3.167 abesbatzetako abeslarik eta musikaririk parte hartu zuten eta 15.500 ikusle inguru bildu zuten.

2.000 pertsona bildu ziren Iruñeko Anaitasuna pabiloian abenduaren 1eko gauean egin zen Gazte Jaialdian. Sonic Toys, Miss Caffeina, Huecco, Rulo y la contrabanda eta Bongo Botrako taldeek emanaldia eskaini zuten bertan.

Gainera, 500 pertsonak jarraitu zuten Tuterako Gaztambide antzokian azaroaren 25ean antolatuta zen "Tutera Hiria" jotzen 6. lehiaketa, Nafarroako Foru Komunitatea Saria. Toki berean, beste 500 pertsonak entzun zuten [Nafarroako Ganbera Abesbatzak](#) abenduaren 2an emandako Nafarroaren Egunaren kontzertua, "12. Musika Nafarroaren historiaren lau une nagusitan" izena zuena.

Aldiz, Burlatako kultur etxean abenduaren 3an egindako Nazioen Jaialdian Nafarroan dauden beste herrialde batzuetako hamar elkartetako 120 artistak esku hartu zuten, eta 450 pertsona bildu ziren bertan.



Nafarroaren Egunaren Gazte Jaialdian bertaratutako ikusleak.

Ekitaldi instituzionalak, Jauregira egindako bisitak eta Foruzaingoaren jarduera

Azaroaren 20 eta 30ean eta abenduaren 3an egindako ekitaldi instituzionalak ([Kirol Merezimenduaren dominak](#) ematea eta [Gazteria sariak](#), [San Frantzisko Xabierren ohorez emandako meza](#) eta [Nafarroaren Urrezko Domina ematea](#)) Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan, Xabierko basilikan eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko patio isabeldarrean 900 pertsona bildu zituzten, guztira.

Gainera, azaroaren 24tik abenduaren 2a bitarte, 1.600 pertsonak [bisitatu zuten Nafarroako Gobernuaren egoitza](#) "Nafarroako Hauregiak atek zabaltzen ditu" zikloaren barnean antolatutako doako bisita gidatuetako 52 taldetan.

Azkenik, 300 pertsona joan ziren Foruzaingoak Los Arcosko ikastetxe publikoko pilotalekuan antolatu zuen [ateak zabatzeko egunera](#). Bide-segurtasuneko haur-parke bat ere jarri zen bertan.



Nafarroako Urrezko Domina NUPari emateko ekitaldian izandako ikusleen ikuspegia.

Galería de fotos



"Tuterako Hiria", Nafarroako Foru Komunitatea Saria, josten 5. lehiaketako finalistak.




Lehendakaria Nafarroako Jauregia bisitatu zuten herritar-talde bati harrera egiten.




Lehendakaria eta beste agintari batzuk sarituekin Kirol Merezimenduaren dominak emateko ekitaldian.



Alli kontseilaria Gazteria Saria jasotako erakundeetako ordezkariekin.



Rulo y la contrabanda taldea Gazte Jaialdiaren barneko emanaldian.



Nafarroako Gobernu Xabierko mezatik irteten.



Nafarroaren Urrezko Domina NUPari ematen.



Nazioen Jaialdiko talde latinoamerikarretako bat.